

ERLAUNTZA



Erlauntza filmeko lantaldea.

Komedia kontu serioa da, oholtza gainean nahiz pantailan

IRENE ELORZA

lazko udazkenean estreinatu zen *Erlauntza* zinema aretoetan. Pandemiako neurri murriztaileak zirela eta, lantaldeak ezin izan zuen estreinaldirik egin orduan, ezta elkarrekin filma ikusi ere. Horregatik, aurtengo Zinemira sailean parte hartzea eta filma Zinemaldiaren baitan aurkeztea oso berezia da erroddajeen parte

hartu zuten guztientzat. "Pena txiki batekin geratu ginen, eta orain, elkar-tu eta izan ez genuen estreinaldi hura egiteko gogoarekin gabiltza", aitortu du Mireia Gabilondo, zuzendariak.

Euskal Herrian ibilbide arrakastatsua izan du komedia koral honek, jende asko identifikatuta sentitu baita. Kepa Errastiren izen bereko antzezlanaren moldaketa hau bere jaiotzatik ezagutzen zuen Gabilondok. Antzer-

Sei emakume haien interpretazio lanetan oinarritutako filma egiteak merezi zuen

kigintza Berriak dramaturgia laborategian ematu zen Errastiren ideia, Mireia Gabilondok berak zuzendu zuen antzezlan, egilearen laguntzarekin, eta oraingoan, Errastirekin elkarlanean egin du zinemarako moldaketa.

Beraz, aktoreekin lan handia egina zuen Gabilondok filmazioarekin has-terako. "Aktoreek testua oso barne-ratuta zeukaten eta hamabost egu-netan egin genuen erroddaje osoa, bi

bertsiotan gainera, eszena bakoitza euskaraz eta gaztelaniaz grabatuta", adierazi du Mireia Gabilondok, "aurretik egindako lanagatik egin ahal izan genuen hain denbora laburrean eta hain modu jarraian". Aitziber Garmendia, Leire Ruiz, Naiara Arnedo, Itziar Atienza, Getari Etxegarai eta Sara Cozar aktoreek daramate kontaktizunaren pisua. Oro har, oso lantalde "polita, gertukoa eta txikia" izan zutela gogoratzen du zuzendari gipuzkoarrak. "Iruditzen zitzaigun merezi zuela sei emakume haien interpreta-zio lanetan oinarritutako filma egitea, istorioaren muina zirela, eta asmatu genuela komediarako tonuan ere", dio. Komedia baten bitartez gauza serioez hitz egitea oso erakargarria egiten zaio zuzendariari, eta *Erlauntza* filmak "sekulako aukera" eman zion horretarako.

Testu borobila oinarri hartuta eta erloju suitzar batek bezala funtziona-tzen duen aktore talde bat agindu-pean, balirudike filmaren arrakasta modu naturalean etorriko zela. Baina, Gabilondoren aburuz, inoiz ezin da horrelakorik aurreikusit. "Susmoa eduki dezakezu eta zure lana horretarako egin behar duzu, lan guztiak egiten diren bezala, esku artean altxor txiki bat daukazula pentsatuta, baina gero zer gertatuko den ez da hain erraza aurreikusten, bestela, bankuek egingo lituzkete ikuskizunak! Publi-koaren gogoarekin jokutzen da eta ez dago jakiterik", dio Gabilondok.

PAPEREZKO HEGOAK

'Egunkariaren' itxiera-operazio makurra, perspektiba berri batetik

I.E.

Euskaldunon Egunkariaren itxieratik hemezortzi urte bete diren honetan, operazio hura lehen pertsonan bizi izan zuten protagonisten testigantzak jaso dituzte Samara Velte kazetariak eta Josu Martinez (*Caminho longue, Barrura begiratzeko leihoak...*) zine-magileak *Paperezko hegoak* dokumentalean. Tentazioa ekoiztetxearen enkarguz, airean geratu diren zenbait galdera erantzuten saiatu dira egileak, garaiko testuinguruan eta auziaren gakoetan sakonduta.

Samara Veltek azpimarratzen duenez, "testuingurua azaltzea oso inportantea da historiaren zati hori zuzenean bizi ez duten horien tokian jartzen bagara". Iraganeko gertaeren narratiban adostasunik ez dagoenez gero, jakinmina dutenei ikus-entzuz-nezko pieza baten bidez transmisioa egitea inportantea dela deritzo. "Do-kumental batek historia oso baten zati bat kontaktzen du; mosaiko bat dela kontuan izanda, mosaiko horren pieza txiki bat transmititzeko balio le-zake". Egunkariaren kontrako operazioa gauzatu zeneko giroak, "dena ETA da" teoriarenak, gatazka bortitz baten baitako jarrera oso gogorrak justifikatzen eta naturalizatzen zituen.



Samara Velte eta Josu Martinez zuzendariak.

"Behar bada gauregun hazten ari den gazte bati bitxia egingo zaio, baina momentu hartan nagusi zen logika beste bat zen eta horrek ahalbide-tzen eta baimentzen zuen gertatu-takoa hain merke ateratzea", dio zu-zendariak, "dokumentalak hori islatu eta ardura batzuk eskatzera dator".

Jakineko datuez gain, informazio berri eta harrigarriak azaleratu ditu *Paperezko hegoak* lanak. "Filmean agertzen diren zenbait datu jakitea baliagarria da ulertzeko Egunkaria-ren aurkako operazioa ez zela ba-karrik egunkariaren aurka, bereziki mehatxatzaile edo arriskutsua ikus-

ten zutelako, baizik eta bazegoela nolabait euskalgintza jomugan jar-tzen zuen pentsaera oso bat". Egun-kariaren kontrako operazioa ez ba-litz gizartearentzat hain tramautikoa izan eta ez balu sortu zuen erantzuna sortu, eraso askoz haratago iritsiko zela da filmeko tesietako bat. Halaxe

azaltzen du Veltek: "Egunkaria ixten dute beraientzat proiektu susmagar-ria delako, euskalgintzatik sortuta-ko proiektu kolektiboa delako eta ez dutelako ulertzen; baina, aldi berean, oso gauza txikia da, erraz jo daite-keena, eta min handia eragiten du maila sinbolikoan, asko irudikatzen duelako. Askoren begietan proiektu susmagarria zen, hasieratik 'pe-katu orijinala' zuena, eta seinatlatze horien ohiartzunek indarra hartzen dute berriz bukaeran".

Kontaktizun onbera bat egitetik urrundu nahi izan dute Veltek eta Mar-tinezek. "Egunkaria bada ilusio kom-partitu baten historia eta hori konta-tu behar da, baina beste alde batetik historia oso gogor bat ere bada, iluna, eta ondorio oso larriak izan dituena, baita jendearen osasunean eta maila pertsonalean ere", adierazi du Veltek. Estatuaren barrunbeetatik sortutako operazioa zela irudikatzen eta den-boran zehar mantendu den iluntasun eta sekretismoa islatzeko, estetika soil, zuzen eta iluna aukeratu zuten egileek.

ETB1en eta eitb.eus-en estreinatu zen *Paperezko hegoak* dokumentala, joan den otsailean. Telebistarako sortutako dokumentala Zinemaldian erakustea "ezusteko pozgarria" izan da egileentzat.